

DEMOKRAZIAREN BIDEAK

Zallak bañan egokiak

Azkenengo artikuluan Marruekosko elekzioiaz egin nuen, eta orain diputadu nortsuek aukeratu dituzten jakinda gero, an esandako gauziak bezela, egunero zer-bait berria erakusten digu.

Egia esateko, ez nuan uste Marruekosko elekzioak jatorrak izango ziranik. Gobernukoak elekzio oiek nola alabaiz irabazteko moldatu zituela uste nuan, banan gertatutakoak nere uestek ukatu ditu. Diputaduen artean gobernuaren aldekoak dira ugarienak, bañan ez geienak. Diputadu oiek bakarrik berak nai izan bezela agintzerik ez daukate, parlamentuan legeak aprobatu erazitzeko erdia bañan geiago osatzen ez dutelako. Beste aldeetik berriz, gobernuko amar ministroetatik bi bakarrik izan dira diputadu aukeratuak. Gauz auek jakinda, gobernuak elekzioak moldatu dituala esaterik ez dauka. Beraz «Le Monde» egunerokoak dienez «gerta ditekera da biako egunean istoriazalleark Marruekosko istoria idaztekoan 1963 go maiatzaren 17 Marruekosko demokrazi garaiaren asierako eguna bezela jartzea». Noretzat beñepiñ Marruekosko gertatutakoak erakuskizun ederra eman dit. Hassan II'gna., ez nuan uste añ jatorria danik. Ez dakit nik zergatik bañan uste izaten degu, atzeratutako erriak demokraziaren bitartez eta partiduen bitartez gobernatzeko ez dutela bañio. Alegia demokrazia ta partiduak Inghlatteran edo Ipar Ameriketan ondo daudea, bañan beste tokitan, batez ere toki atzeratuetan ez. Eta gutxiago toki oietako erriariak —jendearen esanez— odol be-

rokoak baldin badira. Marruekosko gertatutako ezetzkoa ematen dio uste oni. Badakit Inghlatteran beziñ ondo egiañ ez dirala izan izango elekzioak, ezta ere seguru asko partidu oien jokabidea. Bañan ala ere elekzio oiek eta partidu oiek edozitiñ klasetako totalitarismoa bañan obee da. Jakiña bere arrisku guziekin, bañan mundu ontan arrisku gabeko gauzik ez dago ezta ere oso osorik ona danik, bañan okerrago litzake partiduekiko demokrazi batek daukan alde txarrak zuzentzeagatik, oraindikan jokabide txarragoetara jotzea.

Danok izenez demokratik gera, danok gizonaren errespetua ta libertadea edo askatasuna nai degu, bañan itzez bakarrik. Gaurko egunean estadiuk daukan indarrarekin, ekonomiak daukan indarrarekin eta beste aibeste gauz askoekin gizon bakoitzaren libertadeari eustea gerotik geroa zalago dago. Gizonaren libertade ann dienak: pentsaizea, pentsatutakoa adieraztea, alkarren artean alkartzea, bakoitzak bere erabakia artea eta guzian onaren izenean estadu askoek ukatu egiten dituzte, eta beste lekutan ukatzen ez baldin badituzte ere pixkana-pixkana gogo badute. Ortarako, estadiaren egarri ori mozteko (ez esateko) gizonaren eta estadiaren artean bitarteko alkartasun batzuek bearezkoak dira, eta oien artean partidu politikuak ez dira txarrenak. Badakit gure arteko askoetan partidu politiko pektatu dala, bañan pentsamentu oiek uxatzeko garaia badala uste det.

Arregitar Rikardo'k

GIPUZKOARI BEGIRA

Bizi lagun ugaritzearen sustraiak

Azkeneko urte auetan aldaketa aundiak ikusten ari gera Gipuzkoako probintzi ontan. Orain dala amar urte, emendik kampaora dabilenetako gipuzkoar bat, gaur etorriko balitz, begiari siñistu ezinik geldituko litzake. Izan ere amar urtetik onera gauza asko egin dira Gipuzkoan; batez ere erri batzuetan; etxeak, lantegiak, eskolak, eleizak eta beste aibat gauza. Baserri erriak alde batera utzirik, esan liteke, gutxi edo asko, Gipuzkoako erri geinak itxura berri bat artzen ari dirala.

Amar urteen ordez, berriz, 20,30 edo 40 urte auetan atzerrian bizi danetako bat etorriko balitz, lanak izango litzake berak orain dala aibeste urte utzitako Gipuzko bera dala gaur begien aurrean ikusten duan lurralde ori aitortzen. Bai, Ayako aitzak, eta Ernio, Txindiki eta Aitzkorri eta gañerako gure mendi zaarrak, leengoak dirala aitortu bearko luke, baño zenbat aldaketa...!

Asi Bidasoa aldetik, Irun eta Ondarrubirekin; Donosti inguruan, berriz, Errenteri, Pasaí eta Ernani itxura berri bat artzen ari dira. Ori ibarrari begiratuaz berriz zer esanik ez. Lasartetik asi ta Andoain, Tolosa eta Goyerrian zear Zegama arte, azkeneko urte auetan erabat aldatzen ari dira. Berdin xamar berriz Urola ibar aldean; asi Legazpi, Zumarraga eta Urretxuatik eta Azkoiti, Azpeiti, Zumaya arte. Guzien artean geintxona berriz, Deba ibar aldean; Galzagatik asi ta Deba bitartean Mondrago eta Bergara alde batek eta Eibar, Plazentzi eta Elgoibar besteik. Azkenik itxas aldeko erriak ere geroz eta aundiagoak egiten ari dira, Orio, Zarautz, eta gañerakoak, Baserri erriak alde batera utzirik, ez da orintze Gipuzkoan aldaketa aundi edo txikiak izan ez duan erri asko gelditzen.

Azkeneko urteetan Gipuzkoako erriak sumatu duten aldaketa ori ez da ba nolanaikoa. Erri asko azkeneko urte auetan ez azalez bakarrik baizik mamiz ere aldatu egin dira. Izan ere Gipuzkoako itxura aldatze orren mamia ez bait da etxe edo lantegi berriak adierazten dutena bakarrik baizik etxe edo lantegi oietan bizi diran gizon emakume eta aurren aldatzea eta ugaritzea.

ZER GERTATU BA?

Gizaldi onen asieran Gipuzkoak 200 mila bizilagun edo habitante inguru zituan. 1960 garnean urtean egin zan Zentsoak berriz 480 mila exkax zituala adierazten du. Gaur miloi erditik gora dituala dudarik ez. Irurogei urteen buruan ba, batetik bi baño geiago azi zaigu gure probintzia, bizilagun arazoan. Gizaldi onen asieran bi gipuzkoar ziran tokian gaur bost gera. Leengo kaiola berean txoriak ugaritu... izan ere orduko muga berdiñak bai ditu gaur ere.

Bañan, bizi-lagun edo habitante ugaritze au ez da neurri berdiñean egin Gipuzkoako erri guzietan. Ba dira batzuek, gizaldi onen buruan, bi, im, lau eta bost aldiz azi diranak. Beste batzuek berriz gutxiago dituztenak ere Gizaldi onen asieleengo antzera daudenak eta azkenik baita ere gizaldi onen asieran baño bizilagun gutxiago dituzkenak ere Gizaldi onen asieratik gaur arte egin diran Zentso edo bizilagun kontatzeak adierazten dutenez, 1900 tik 1960 bitartean gora-bera auek izan dira:

1900 dik 1960 bitartean 5 aldiz edo geiago aziak: Pasaí (Iru Pasaiaik bat egiñik) eta Legazpi.

1900 dik 1960 bitartean 4 tik 5 aldira edo geiago aziak: Eibar, Errenteri, Villafrañca.

1900 dik 1960 bitartean 3 tik 4 aldira edo geiago aziak: Irun, Donosti, Ernani.

Beasain, Zumarraga, Urretxua, Mondragon.

1900 dik 1960 bitartean 2 tik 3 aldira edo geiago aziak: Andoain, Ibarra, Legorreta, Tolosa, Lazkano, Orio, Zarautz, Plazentzi, Vergara.

1900 dik 1960 bitartean 2 aldiz baño gutxiako ugaritua: Pixka bat azi diran erri guziak. Azkenik badira 1900 en baño 1960 an bizi lagun gutxiago dituztenak: Ogei bat baserri - erri, Itxaso, Albistur, Zerain eta erri txiki oien antzekoak. Guzien artean bizilagun geina galdu ditun erria Elgetakoa da Gizaldi onen asieran zan erdia baño gutxiago da.

Neurri ezberdiñean azi dira Gipuzkoako erriak beraz. Batzuek gora ta gora egiten duten bitartean besteak beera djoaz. Kontuak ateratzen baditugu leengoan dirauten edo gutxiu diran erriak azi diranak baño ugarigoak dira. Bañan ori ala arren, Gipuzkoak guzia batean artzen bada, bizi lagunak asko ugaritu dira. Ori nola ditekzen? Ba, azi diran erriak leendik ere aundixamarrak ziralako eta gutxitu diranak berriz leen ere kokkorrak geinetan. Gutxi daukanari kendu eta ugari daukanari ugariego eman ezkeru ala izan bear. Orregatik Gipuzkoako bizi lagunak ugariegoak dira gaur gizaldiaren asieran baño. Bañan nun dago bizilagun ugaritze orren sustrai? esan dezake norbait.

Galdera ori erantzun nai badogu bi gauza ditugu gogoan artu bearrekoak:

Leñbizikoa, Jaiotz-Eriotz gora bera eta bien artean dagoan aldea Berak adieraziko digu azi-neurri naturala (indice de crecimiento vegetativo) nolakoa dan.

Bigarrena, Erbestetik edo beste probintziatik etorri eta emendik kampaora joan diranen gora bera. Bien artean dagoan aldeak adieraziko digu joan-etorrien azi neurria (balance de movimientos migratorios).

Auek biak bat egiñik emango digute azi neurri osoa (indice de crecimiento global). Gaur geiegi luzatu gabe gai au beste ekinaldi laterako utzi dezagun.

Iñaki Lasañaga (Apaiza)

ZENBAT BURU AINBAT ABURU

EZTA...! BAIDA...!

ZERUKO ARGIA'ren zuzenlariari. Agur.

Oso atsegin izan zait «Orio'ko leiza-zuloo» buru-izenekin, azkeneko zenbakian eman diguzun aipemena.

Ustea det, ez naizela bakarra berri orrek barru-barruko zertxo bat ikutu digunak. Au orrela, eta gure-gurea degun Barandiaran jauna azterklearietako bat danez, zergatik ez galde-erantzun saio bat eskatu eta astekari onetan eman?

Ez nitzake arrituko gogo on guztiz egin, eta are, euskal aldzikari onenatiz gordeko balu, bere azterketak eman lezaiokeen berri mamitsun bat edo beste.

Al! eta ez astu gero galdetzea noizko izango degun guk, gende xe eta arruntok, izkutuko iduri oiek ikusteko baimena.

Leiza zall

Zuzendu bear zenuketen gauza ezta ain garrantzizkoa, baña or ere, akullua sarztea, pixkabat ez bada ere, ez legoke gaizki. Ta da: euskeraren illeta otsa. Idazki geiegi argitaratzen dirta gure mintzairaren illeta otsez ta ori ezta ongarri euskaldunaren moralerako; lendik ere Euskalerrietan ez baita itxaropen geiegirik. Ta euskeraren illetatatz artu bear genituzke euskerara lantzeko, indartzeko ta zabaltzeko

zer egin bear dan edo zer bide jarraitu bear dan ari diran geienak. Era ontako idazkiak ez dotoz gaizki gauza, edo idea, edo bide berriz onuririk datoztean, baña geien-geienak ez digute ezer berririk esaten. Lenago euskeltzale guztiok erabili ditugun ideak argitaratzen dituzte. Adibidez, era ortakoak ditugu Xabier Gereñoren «Euskal antzerkiaren alde», Abeletxeren «Bilbotiko yardunak», eta beste zenbait, ala ere, «Ezta...! Baida...!» satekoak. Era ortaz, leengoako zenbakietan naikoa laudorio argitaratu zan «ZERUKO ARGIA»-k euskerarentzat ekarren arnas berri preskoa airatuz ta goratuz. Orain obe litzake, betiko jela bastertuz (esan dedan bezela, premiñazko ta idea on berriak izan ezik), egiñza bideari darrai, gañerako jardunkizuneri jaramonik egiteke. Euskerara landu, zer lantzen ari geran esateko. Ta euskerara landuko degu baldin euskeraz idazten ditugun gauzak giarra ba-dute. Idazlanak izan bear du gatz ta garrantzia, ta ortarako «ZERUKO ARGIA» deus dala eztabo dudarik. Bertan azaltzen diran zenbat lan jakingarri ditugu agiritik onenak.

Besarkadak eta agindu.

S. Marlin

OARRA

ARPIDE-ORDAIÑA

Sei illabetero.

Garagarrilean eta gero Agorrean

«Zeruko Argia» urtean bi aldiz kobratuko da. Irakurleei aditzera eman nai diegu, jakin dezaten noiz pagra. Aurten, leengoaz Garagarrilean (Junio) eta bigarrenez Agorrilean (Septiembre). Datorren urtetik aldiz aurretik egingo da.

ENDARITZA	BANATZAILLETZA
Oquendo, 22	Guetaria, 5.º-2.º-3
Tel. 41284	Tel. 10644
San Sebastián	
SALNEURKIRIAK	
ESPAÑA'N	
Urtekoa (1983)	110'— pezia
Sei illabetekoa	65'— "
Iru illabetekoa	32'50 "
Ale bakarra	2'50 "
ATZERRIAN	
Europa	150'— "
Beste erriak	200'— "

OARRA

ZERUKO ARGIA artu nai ez dutenak abisatu bear dute. Bestela, lengo arpidedun guztiak artu nai dutela diertzen degu, ta baldu egingo ulegu.